



Gorka ETXEBARRIA DUEÑAS
Historialaria

Posizionatzeari buruz

Artista bera eta artista-
ren lana bereizi behar
direla, bereizi beharko
genituzkeela, bereizi
daitezkeen... Iritziak
entzunda, pentsa deza-
kegu posible dela artista baten obraz
gozatzea. Baina beharrezkoa da artis-
taren izanak eta eginak ezagutzea ere,
obra bere osotasunean baloratzeko.
Batak ez du bestea kentzen.

Aurreko goizean Kai Nakairen gaia
atera zuten irrati publikoan eta gaine-
tik aipatu zuten artistaren eta obra-
ren arteko harremanaren auzia. Ez
zuten gehiago sakondu, irratsaioaren
tonua beste bat baita. Gasteizen azkar
hedatu zen notizia hori joan den as-
tean, azken urteotan EiTbK gehien
sustatu duen politikariaren podcast
batean parte hartu baitzuen gasteiz-
tar abeslariak.

Agian hedabide propagandistikoek
ez dute beren lana uste bezain ondo
egin eta Kai Nakaik, zorionez, ez zuen
ezagutzen Beatriz Artolazabal. Gaitz
erdi. Sare sozialetan finkatuta dagoen
gorroto zuzenaren inertziak ere ez du
askorik laguntzen. Boterearen erabat
adierazgarri den alderdi batekin pozik
agertzeak sareetan zenbait ondorio
eduki zitzakeela ez zen aurreikusten
zaila.

Zer esanik ez, noranzko guztietan
gertatzen dela sareetako gorroto gor-
din dinamika hori. Jakin badakite
emakumezko aktibistek, haien pribi-
legioak mehatxatuta ikusten dituzten
gizonengandik egunero jasotzen di-
tuzten hamarnaka mezuekin: zoroak,
itsusiak, erridikuluak, gaizki-txorta-
tuak, erresuminduak... Oso presente
eduki behar dugu halakoak ere ema-
kumeen aurkako biolentzia buklear-
en eta dinamiken parte direla. Ez di-
tut Kai Nakaik jasotako mezu guztiak
errepasatu, baina ez dut uste zentzu

horretan interpretatu behar direnik,
horiek gustatu ala ez.

**Hala eta guztiz ere, sistemaren txis-
telari fin den Andoni Ortuzarrek zuze-
nean lotu ditu abeslariari eginiko kri-
tikak eta ezker abertzaleak gizarte-
kontrolatzeko omen dituen matoi-
praktikak.** Agian tradizio kristauan
ezinezkoa zaie ulertzea hamarkada
luzez Euskal Herriak izan duen eral-
daketa. Haien ikuspegian, ezkerreko
abertzaleok ezingo gara jatorrizko be-
katutik inoiz askatu (dena delakoa
ere), Jesukristoren mezua –barkatu,
jeltzaleen mezua– gure egiten ez du-
gun bitartean.

EH Bilduren hauteskunde zerren-
dek ere, espainiar prentsaren arabera,
ezin diote uko egin jatorrizko beka-
tuari. Kondena luzeak beteak dituz-
ten eta herritarren erabaki demokra-
tikoekin erabat konprometituta

dauden hamarnaka pertsonek ez
omen dute zilegitasunik beren herrie-
tako udaletara aurkezteko.

Oso modu arraroa dute kristau tra-
dizio kontserbadoretik datozenek es-
kubide zibilak ulertzeko. Boterearen
alde agertzea adierazpen eskubidea-
ren frogarik behinena bezala ulertzen
dute. Andyk eta Lucasek sekula ez zu-
tela EH Bilduk antolatutako ezertan
parte hartuko esan zutenean ez zuten
halako harrabotsik sortu jeltzaleek.
Egia esan, niri ederki iruditzen zait.
Posizionatzea badute artistek, nahi
duten bezala. Gero ez dezatela artista
eta obra erabat bereizi behar direla
defendatu. Bakoitzak bere hautuak
egin ditzala. Horiek gaizki iruditzea
ez da totalitarismoaren adierazgarri.
Hori ere adierazpen askatasuna da.
Askatasuna vs. totalitarismoa dikoto-
mian geratu dira. Gerra Hotzak dirau
oraindik... •



Kai Nakai, mikroa eskutan, Bizipoza elkartearen aurkezpen ekitaldi batean. Jon URBE | FOKU